

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ingurumenak laguntzen deialdia egin du ingurumen-arloko hezkuntza eta sentsibilizazio proiektuetarako, ingurumen-boluntariotzarako, lurraldearen zaintzarako eta herritarren zientziarako

Guztira 138.000 euroko laguntzak gobernuz kanpoko elkarte eta erakundeentzat dira

Ostirala, 2018.eko apirilak 20

Ingurumenak [laguntzen deialdia egin du](#) ingurumen-arloko hezkuntza eta sentsibilizazio proiektuetarako, ingurumen-boluntariotzarako, lurraldearen zaintzarako eta herritarren zientziarako. Guztira 138.753 euroko diru-laguntzak gobernuz kanpoko elkarteentzat eta erakundeentzat dira, Ingurumeneko zuzendari nagusiaren [ebazpenean](#) jasotakoaren arabera; ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da, gaur ostirala, apirilak 20. Diru-laguntzaren portzentajea aurkeztutako aurrekontuaren %80 eta %100 artekoa izango da, proiektu-motaren arabera.

Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 20an amaituko da.

Deialdiaren edukia xehetasunez ezagutzera emateko asmoarekin, informazio-saioa egingo da datorren astelehenean, apirilaren 23an, 17:30ean, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioio Departamentuaren ekitaldi-aretoan (González Tablas kalea, 9. Iruña). Saioa ordubetekoa izango da, eta, bertara joatekotan, eduamb@navarra.es posta elektronikora idatzi behar da.

Diru-laguntza izan dezaketen proiektuak

Laguntza hauen helburua da, besteak beste, honako jarduera-eremu hauek kontuan hartzen dituzten proiektuei diru-laguntza ematea: ingurune naturalarekin, paisaiaren mantentzearekin eta berreskuratzearekin eta Nafarroako dibertsitatearen kontserbazioarekin zerikusia duten proiektuak; babestutako espazio naturalak eta interes berezia duten bestelako espazio bereziak.

Horrez gain, diru-laguntza izan dezakete ondorengoak bultzatzeko, sentsibilizatzeko eta sustatzeko ekintzek: ekonomia zirkularra, kontsumo arduraduna, hondakinen kudeaketa, aldaketa klimatikoaren edo ingurumenaren kutsaduraren aurkako borroka; uraren eta energiaren arrazoizko erabilera eta ingurune naturalaren kontserbazioarekin bateragarriak diren baliabide naturalen erabilera eta aprobetxamenduak; hiriko ingurumena; ingurumen-iraunkortasuna sustatzea; eta ikerketa, hezkuntza eta hedapena bultzatzeko ingurumen-datuen bilketarako

lankidetza.